

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko martxoaren 13ko 32/2018 Foru Dekretuan atzemandako hutsen zuzenketa. Foru dekretu horren bidez, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko maiatzaren 10eko 86/2016 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria aldatzen da.

2018ko martxoaren 16an (ostirala), 54. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen goian aipatutako Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko martxoaren 13ko 32/2018 Foru Dekretua.

Bizkaiko Aldizkari Ofiziala arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2009ko ekainaren 15eko 97/2009 Foru Dekretuaren 17.2.2.a) artikulua honako hau ezartzen du: agiriaren zentzua aldatzen ez duten edo testuingurutik argi eta garbi ulertzeko aukera ematen duten akatsak edo akats materialak daudenean, baina gerta daitezkeen nahasteak ekiditeko asmoz zuzentzea komeni dela erabakitzen bada, akats horiek zuzendu egingo dira, agiria dagokion organo edo erakundeari testua edo testuaren beharrezko zatia, zuzenketa eginda, berriro bidal dezan eskatu ondoren.

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko maiatzaren 10eko 86/2016 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria aldatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko martxoaren 13ko 32/2018 Foru Dekretuan halako hutsak atzeman direnez, zuzenketa hauek egin behar dira:

Artikulu bakarrean

— *Hau dioen lekuan:*

- —Ekonomiaren eta aurrekontuen arloko kontrola egitea dagokion mahaikide titularra: Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuko burua.
- Ordezkoak: Fiskalizazio Zerbitzuan ekonomiaren eta aurrekontuen arloko kontrola egitea dagokion goi-mailako edozein teknikari.

— *Honako hau esan behar du:*

- Ekonomiaren eta aurrekontuen arloko kontrola egitea dagokion mahaikide titularra: Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuko burua.
- Ordezkoa hauetako edozein izango da: Fiskalizazio Zerbitzuko Gastuak Fiskalizatzeko Ataleko burua edo Fiskalizazio Zerbitzuan ekonomiaren eta aurrekontuen arloko kontrola egiteko funtzioa duen goi-mailako teknikari bat.

— *Eta, hau dioen lekuan:*

- Mahaikide titularra: kontratua sustatu duen foru saileko Zerbitzu Orokorren edo Zentralen Zerbitzuko burua.
- Ordezkoa hauetako edozein izango da: kontratua sustatu duen foru saileko Zerbitzu Orokorren edo Zentralen Zerbitzuko edozein ataletako burua edo zerbitzu horri atxikitako goi-mailako teknikari bat.



— *Honako hau esan behar du:*

- Mahaikide titularra: Kontratua sustatu duen foru sailean edo Ahdun Nagusiaren Kabineteen kontratazio-espeditentak izapidetzeko eskumena duen zerbitzuko burua.
- Ordezkoa hauetako edozein izango da: kontratua sustatu duen foru sailean kontratazio-espeditentak izapidetzeko eskumena duen zerbitzuko edozein ataletako burua edo zerbitzu horri atxikitako goi-mailako teknikari bat.

Bilbon, 2018ko maiatzaren 9an.—Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua, Ibone Bengoetxea Otaolea